

# LEHEN MAILAKO MATRIKULA ONLINE EGITEKO ESKULIBURUA

UPV/EHU  
2022/2023

## AURKIBIDEA: 1. MAILAKO MATRIKULA

1	MATRIKULAREN SISTEMARAKO SARBIDEA .....	4
2	IDENTIFIKAZIOA.....	5
3	MATRIKULARAKO SARBIDEA .....	6
4	BEHIN BETIKO MATRIKULA.....	7
4.1	TITULAZIOA .....	7
4.2	DATU PERTSONALAK .....	9
4.3	DATU ESTADISTIKOAK.....	10
4.4	MATRIKULA ETA ORDAINKETAK.....	11
4.5	HIZKUNTZA, TALDEA ETA IRAKASGAIK AUKERATZEA .....	13
4.5.1	Hizkuntza aukeratzea .....	13
4.5.2	Taldea aukeratzea .....	13
4.5.3	Irakasgaiak aukeratzea .....	14
4.6	LABURPENA ETA TASAK.....	15
4.7	DOKUMENTAZIOAREN PANTAILA .....	17
4.8	MATRIKULA AGIRIA .....	18
4.9	ORDAINKETEN PANTAILA .....	20
5	BALDINTZAPEKO MATRIKULA .....	21
5.1	UNIBERTSITATE AURREKO PROFILA .....	21
5.2	TITULAZIOA .....	22
5.3	HIZKUNTZA, TALDEA ETA IRAKASGAIK AUKERATZEA .....	23
5.3.1	Hizkuntza aukeratzea .....	23
5.3.2	Taldea eta irakasgaiak aukeratzea .....	24
5.4	MATRIKULAREN LABURPENA .....	26
5.5	DOKUMENTAZIOAREN PANTAILA .....	27
5.6	BALDINTZAPEKO MATRIKULAREN AGIRIA.....	28
5.7	BALDINTZAPEKO MATRIKULA BEHIN BETIKO BIHURTZEA .....	29
5.8	BALDINTZAPEKO MATRIKULA DEUSEZTATZEA.....	30
6	BESTE AUKERA BATEAN MATRIKULATZEA .....	33
6.1	GAUR APLIKAZIORAKO SARBIDEA .....	33

6.2	IDENTIFIKAZIOA.....	35
6.3	UPV/EHUko IKASLE PROFILA.....	36
6.4	TITULAZIOA .....	37
6.5	BESTE AUKERA BATEAN MATRIKULATZEA, BALDINTZAPEKO MATRIKULA EGINDA IZANEZ GERO ALDEZ AURRETIK.....	40


## 1 MATRIKULAREN SISTEMARAKO SARBIDEA

Sisteman sartzeko GAUR aplikazioa erabili behar duzu, administrazio izapideen kudeaketa informatikorako eta ikasleen bizitza akademikoa osatzen duten datuak ikusteko oinarrizko tresna. Horretarako, izena emateko fasean (SARBIDEA) eman zitzazkizun erabiltzailea eta pasahitza erabili behar dituzu.

Hau da GAUR aplikazioan sartzeko esteka:


<https://gestion-servicios.ehu.es/html/gaur.html>

Hurrengo pantailan «Unibertsitateko akademi gestio gaurkotua» sakatu behar duzu.



## 2 IDENTIFIKAZIOA

Jarraian, GAUR aplikazioaren hasierako pantaila agertuko da. Bertan, izena emateko fasean (SARBIDEA) eman zitzaizkizun erabiltzailea eta pasahitza sartu behar dituzu, gezi urdinak adierazten duen lekuan, eta, ondoren, «Sartu» botoian klik egin.




### 3 MATRIKULARAKO SARBIDEA

«Matrikulak (Matrikula graduko 1. mailan. Ikasle berriak)» karpetan sartu behar zara. Pantailan honetan bi aukera ikusiko dituzu matrikula egiteko:

- **Baldintzapeko matrikula: baldintzapeko matrikula** egin ahal izango duzu **BALDIN ETA** UPV/EHU ez den **estatuko beste unibertsitate publiko** batean onartua izateko eskaera eginda baduzu. Horretarako **nahitaez** aurkeztu beharko duzu beste unibertsitate publiko batean onartua izateko eskaera egin duzula egiaztatzen duen agiria.
- **Behin betiko matrikula:** gainerako kasuetan.

Matrikula egiteko epe bakoitza amaituta, beste aukera hobe batean onartu bazaituzte, 6. puntuko urratsei jarraitu beharko diezu aukera horretan matrikulatzeko. **Beste aukera batean matrikulatzea**



## 4 BEHIN BETIKO MATRIKULA

- «Matrikula graduko 1. mailan. Ikasle berriak» atalean sartu behar zara, eta bertan
  - «Graduko behin betiko matrikula» aukeratu.

### 4.1 TITULAZIOA


Pantaila honetan agertzen da zein gradutan izan zaren onartua. NAN zenbakian egin behar duzu klik matrikula egiten hasteko.

NAN	Ikaslea	Titulazioa	Egoera	Noiz irisia	Azken matrikularen data	Artxibo ident.
BLBO BLBO, N	310	GDFIE30	Gradu Bikoitza: Fisika + Ingeniaritza Elektronikoa	Irakita	2022/04/06	


Sistemak bekarik eskatu duzun edo eskatuko duzun galdetuko dizu.

*Gestio Akademikoaren Atala*

*Graduko Ikasketen Zerbitzua*



Erantzuna «Bai» bada, ondoren ikusten duzun pantaila agertuko zaizu. Bertan agertuko da beka Eusko Jaurlaritzarena edo MECena den, bizi zaren probintziaren arabera. Sakatu «Jarraitu», eta DATU PERTSONALEN pantailara helduko zara.






Erantzuna «Ez» bada, zuzenean pasatuko zara DATU PERTSONALEN pantailara.

## 4.2 DATU PERTSONALAK

Pantaila honetan agertzen den informazioa zuzena den begiratu behar duzu. Daturen bat aldatu nahi baduzu, ikastegiko idazkaritzara joan behar duzu. Aurrera egiteko, sakatu «Jarraitu».



[GAUR] x Datu pertsonalak x +  
 https://gestion-integracion-servicios.ehu.es/pls/entrada/matw0010.htm\_lista\_expedientes\_next

**Espedientea**

Gratu Bikoitza: Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia 2022/23

Hauk dira zure datuak. Aldaketarik egin nahi baduzu, joan zure ikastegiko idazkaritzara.

**Datu pertsonalak**

Agiri mota	Pasaportea	Nortasun-agiri zk.	AA000090
1. abizena	Aurre	2. abizena	Bilbao
Izena	Amaia	Jaioteguna	1997/07/26
Sexua	Emakumezkoa	Ezgatutasuna	Ez
Jaioterrria	Andorra	Nezionalitatea	andorrtar
Saila	xx	Herria	xx

**Helbidea**

Kalea/plaza...	kalea	Izena	Unica
Atari zk.	34 Solairua 3	Letra	Eskailera
Herrialdea	Espainia	Telefonoa	55555555 PK 48350
Probintzia	Bizkaia	Udalerrria	Bustunia

**Bankuko datuak**

**Titularra**

Agiri mota	Nortasun-agiri zk.
1. abizena	2. abizena
Izena	

**Kontua**


IBAN kontua	
-------------	--

Jarraitu

12:42 25/09/2022

Hurrengo pantailan, «Adierazten dut» laukitxoa markatu behar duzu, eta datuak babesteko legea onartu, matrikula egiten segitu ahal izateko.

**Gestio Akademikoaren Atala**
  
**Graduko Ikasketen Zerbitzua**



[GAUR] x Egneratu datu pertsonalak x +

https://gestion-integracion-servicios.ehu.es/pls/entrada/matw0090.htm\_modificar#

**Espedientea**

A [redacted] **Gradu Bikoitza: Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia** **2022/23**

**Egneratu datu pertsonalak**

1. telefonoa  2. telefonoa

Helb.el.

**Adierazten dut:**

- 1.- Badakit zein garrantzitsua den zintzotasuna eta etika arlo akademikoan, eta hitzmaten dut unibertsitatean nagoen bitartean ez dudala plagionik egingo eta ez dudala jarrera onartezinik izango.
- 2.- Badakit azterketetan edo lanetan plagionik egin ez gero, jarrera horrek, unibertsitateko araudiari jarraituz, larriki kaltetu dezakeela nire espediente akademikoa, titulazioan izan dezakeden ibilbidean kalte konponezina eragin dezakeela eta litekeena dela unibertsitatea edo ikasketak bertan behar izatea.
- 3.- Hitzmaten dut arlo akademikoko araudia beteko dudala eta nire ikasketen ardatz zintzotasuna eta etika izango direla.


Europako Parlamentuak eta Kontseiluak apirilaren 27an emandako 2016/679 EB Erreklamenduko 13. artikularekin eta abenduaren Seko 2018/3 legearekin bat etorrita ( datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko erreklamendua), honen bidez jakinarazi nahi dituz zure datuak UPV/EHUren erantzunkizuneko fitategian gordetako direla. La finalidad del tratamiento es gestionar los procesos de Matriculación en los estudios de Grado de la Universidad, así como los expedientes, junto a las actuaciones administrativas y académicas inherentes y derivadas de ellos, incluida la expedición de los correspondientes títulos oficiales. Los datos objeto de tratamiento estrictamente necesarios para tal fin, se podrán ceder a bancos y entidades colaboradoras, para el cobro de las tasas académicas correspondientes; al departamento de Gobierno Vasco y Ministerio competentes en materia de educación superior; a las agencias de acreditación externas; al Servicio Vasco de Empleo para realizar encuestas de inserción laboral y a otras universidades para la gestión de expedientes de traslado. El tratamiento de los datos de carácter personal es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en ejercicio de poderes públicos conferidos a la UPV/EHU, así como para el cumplimiento de obligaciones legales aplicables a la UPV/EHU para la prestación del servicio público de la educación superior en los estudios de Grado en los cuales va a formalizar su matrícula de conformidad con lo establecido en la LOU y en la Ley del Sistema Universitario Vasco y para la expedición de títulos oficiales. Por ello, la persona titular de los datos de carácter personal está obligada a facilitarlos. Respecto del tratamiento tiene usted derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos de carácter personal de los que es titular, así como otros derechos, tal como se explica en la información adicional en el siguiente enlace: <http://www.ehu.es/babestu>

Onartzen ditut
   
 Ez ditut onartzen

**Atzera** **Jarraitu**

### 4.3 DATU ESTATISTIKOAK

**Nahitaez bete behar dituzu Hezkuntza Ministerioak eskatzen dituen datu estatistiko hauek:**




Desgaitasunen bat baduzu, adierazi egin behar duzu («BAI»). Hori eginda, leiho bat irekiko da, non aukeratu beharko dituzun desgaitasun mota eta desgaitasun maila (ehunekoa). Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua harremanetan jarriko da «BAI» laukitxoak markatzen duten ikasleekin, jakiteko zeintzuk premia dituzten. Aurrera egiteko, sakatu «Jarraitu».

#### 4.4 MATRIKULA ETA ORDAINKETAK


Prezioak ordaintzetik salbuetsita egoteko edo prezioak murrizteko eskubidea baduzu (familia ugaria, desgaitasuna eta abar), eta hori egiaztatzen duen agiria zure espedientean badago, unibertsitateak zuzenean aplikatuko dizu murrizketa. Hala ez bada, kasuan kasuko egiaztagiria igo beharko duzu aplikaziora (Matrikula egiteko prozesuaren azken pantaila, ordaindu aurretik). Zure ikastegiko idazkaritzak agiriak aztertu ondoren, dagokizun murrizketa aplikatuko zaizu.

Ordainketa nola egingo duzun aukeratu behar duzu (helbideratzearen bidez edo txartelaren bidez), eta zenbat epetan.

Dohaintza bat egin nahi baduzu, aukeratu «Garapenerako lankidetzaz». Kontuan izan matrikularen zenbatekoa % 0,7 igoko dela. Ez baduzu nahi, aukeratu «Inori ere ez».




Ordainketa helbideratzea aukeratzen baduzu, bankuko datuak sartzeko leiho bat irekiko da. Datuak sartu ondoren, sakatu «Gorde».



## 4.5 HIZKUNTZA, TALDEA ETA IRAKASGAIAK AUKERATZEA

### 4.5.1 Hizkuntza aukeratzea


Aukeratu zein hizkuntzatan ikasi nahi duzun (euskara/gaztelania) eta sakatu «Jarraitu».



### 4.5.2 Taldea aukeratzea


Pantaila honetan taldea aukeratu behar duzu (pantailaren eskuinaldea), klik eginda dagokion laukitxoan.

Gestio Akademikoaren Atala  
 Graduko Ikasketen Zerbitzua




### 4.5.3 Irakasgaiak aukeratzea

Taldea aukeratu ondoren, "Erakutsi irakasgaiak" sakatu behar duzue, pantailaren ezkerrean.



Hori eginda, irakasgaiak ikusiko dituzue. Irakasgai guztiak aukeratu behar dituzue. Irakasgaiak aukeratuta emango

dizkizu aplikazioak, salbu eta hizkuntza hautatu behar baduzu edota irakasgaiak azpitaldeak baditu. Hizkuntza edota azpitaldea hautatu behar duzu gezi urdinak adierazten duen lekuan, eta irakasgaia automatikoki aukeratu da. Guztiak hautatu ondoren, sakatu «Amaitu hautapena».



The screenshot shows a web browser window with the URL <https://gestion-integracion-servicios.ehu.es/pls/entrada/matw0150.htm>. The page title is 'Matrikula potentziala'. The main content area displays a table for course selection. The table has columns for 'Irakasgai', 'Hala', 'Hala', 'Irakasgai', 'Irakasgai', 'Irakasgai', and 'Kredituak'. A blue arrow points to a dropdown menu in the 'Irakasgai' column for the course 'Mikrobiologia'. The table lists various courses with their respective credits and status.

Irakasgai	Hala	Hala	Irakasgai	Irakasgai	Irakasgai	Kredituak
<input checked="" type="checkbox"/> Biologia I	S	1	C	32 Eustara-Giorea		6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Biologia II	S	1	C	32 Eustara-Giorea		6,00
<input type="checkbox"/> Ingeñiaritza Kimikoaren eta Biokimikariaren Oinarriak	S	1	C		(*)	6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Mikrobiologia	D	1	C	32 Eustara-Giorea		6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Kimika	D	1	C	32 Eustara-Giorea		6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Zuhuren Biologia	D	1	C	32 Eustara-Giorea		6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Oinarriko Metodologia Biokimikoak	D	1	A	32 Eustara-Giorea		9,00
<input checked="" type="checkbox"/> Biostatistika	D	1	C	32 Eustara-Giorea		6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Matematika	D	1	A	32 Eustara-Giorea		9,00

## 4.6 LABURPENA ETA TASAK

Pantaila honetan ikusiko dituzu matrikularen egoera, aukeratuak irakasgaiak/taldeak eta ordaindu beharko dituzun prezio publikoen likidazioa. «Jarraitu» sakatu aurretik, berrikusi matrikularen laburpena.

Gestio Akademikoaren Atala

Graduko Ikasketen Zerbitzua

<https://gestion-integracion-servicios.ehu.es/pls/entrada/matw0150.htm00>

**Bioteknologiko Gradua** 2022/23

**HAUKEK IZANGO DIRA ZURE MATRIKULAREN BEHIN BETIKO DATUAK. JARRAITU AURRETIK, BEGIRATU EA DENA ONDO DAGOEN.**

**Irakasketa**

Dendakaren Oinarriko Sabele adar bazuen oinarriko TeGradu-amaierako lara Peltuzkoze Onfahilesteia

KODEA	IZENA	NOTA	EKASTURTEA	DEIAL	MAT	UKO	TALDEA	KREDITUAK	PREZIOA	ZENBATEKOA
2541	Matematika	D	1	0	1	0	32	6,00	19,84	119,04
26571	Kimika	D	1	0	1	0	32	6,00	19,84	119,04
26710	Biolimika I	S	1	0	1	0	32	6,00	19,84	119,04
26711	Zeruen Biologia	D	1	0	1	0	32	6,00	19,84	119,04
27806	Fisika	D	1	0	1	0	32	9,00	19,84	178,56
26721	Oinarriko Metodologia Biotekniko	D	1	0	1	0	32	9,00	19,84	178,56
26745	Bioestatistika	D	1	0	1	0	32	6,00	19,84	119,04
26747	Ingeniaritza Kimikoa eta Bioteknologikoa Oinarri	S	1	0	1	0	61	6,00	19,84	119,04
26719	Biolimika II	S	1	0	1	0	32	6,00	19,84	119,04

DEIAL: erabiliko denak kopurua; MAT: matrikula kopurua irakasketa; G: irakasketa egokiusa; \* irakasketa kalifikatze dago; UKO: egindako uko kopurua.

KREDITUAK GUZTIRA 60,00


**Datu ekonomikoak**

Irakasketa zerbitzioa		- Beharrene ofertesio matrikulagatik	
-1. matrikula	1190,4 €	- BESTE BEHARREN BATZUK	
-2. matrikula		MATRIKULA GUZTIRA	1.258,47 €
-3. matrikula		Matrikula mola	Arrieta
-4. matrikula		Espele ordaindu	Bei
Espediente akademiko irakitzera (gradu)	27,96 €	1. espe	440,78 €
Eskele-asegurua (gradu)	1,12 €	2. espe	408,85 €
Matrikula-gastu irakasketa abipuzatuzko larre	30,68 €	3. espe	408,84 €
GUZTIRA	1.250,16 €		
<input checked="" type="checkbox"/> Garapenerako berbidetza	8,31 €		

**Birikalkulatu** **Alzera** **Jarraitu**

«Jarraitu» sakatu ondoren, matrikularen baldintzak irakurri beharko dituzu hurrengo pantailan. Ados bazaude, «Onartzen ditut» aukeratu behar duzu eta «Jarraitu» sakatu.






## 4.7 DOKUMENTAZIOAREN PANTAILA

- Lehen mailako matrikula egiteko jarraibideetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko duzu:
  - Aukeratu agiri mota.
  - Sakatu «Aztertu», igo beharreko fitxategia bilatzeko.
  - Sakatu «Gehitu dokumentua».
  
- Erantsitako agiri guztiak «Erantsitako dokumentuak» eremuan ikusten dira, dokumentua hautatuta eta «Ikusi» botoian klik eginda. Horrez gain, ikastegiak balidatu ez dituen agiriak ezabatu ahal izango dituzu, dokumentua hautatuta eta «Ezabatu» botoian klik eginda
- Matrikula egiteko unean ez baduzu beharrezkoak diren dokumentu guztiak, hamar egun izango dituzu aplikaziora igotzeko falta zaizkizunak.

- Matrikula ikastegian bertan egiten baduzu, hamar egun izango dituzu aipatutako dokumentazioa aplikaziora igotzeko.  
Dokumentazio hori beranduago igo nahi baduzu, GAUR aplikazioan sartu beharko zara (UPV/EHUko ikasle moduan daukazun profilean), «Matrikulak (Matrikula graduko 1. mailan. Ikasle berriak)» karpetaaren barruan dagoen «Matrikulatzeko dokumentazioa igo» atalean.
- Amaitu ondoren, sakatu «Jarraitu».



## 4.8 MATRIKULA AGIRIA

Ondoren, matrikularen agiria eskuratuko dugu. Bertan agertuko dira matrikularen laburpena, erabiltzailearentzako informazioa eta gomendio batzuk.

**Gestio Akademikoaren Atala**  
**Graduko Ikasketen Zerbitzua**

Matrikula agiria  
 Ikaslearen izen-abizenak: Ibar [REDACTED]  
 NAN: [REDACTED]  
 Ikastegia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
 Ikasketak: GBIOTE30 Bioteknologiako Gradua  
 Irakasgaiak:

KODEA	IZENA	MOTA	MAILA	DEI.	MAT.	KRED.	UKO	TALDEA	HIZK.
25141	Matematika	D	1	0	1	6	0	32	Euskara
26571	Kimika	D	1	0	1	6	0	32	Euskara
26710	Biokimika I	S	1	0	1	6	0	32	Euskara
26711	Zelulen Biologia	D	1	0	1	6	0	32	Euskara
27806	Fisika	D	1	0	1	9	0	32	Euskara
26721	Oinarritzko Metodologia Biokimikoa	D	1	0	1	9	0	32	Euskara
26745	Bioestatistika	D	1	0	1	6	0	32	Euskara
26747	Ingeniaritza Kimikoaren eta Bioteknologiakoaren Oinarriak	S	1	0	1	6	0	61	Ingelesa
26719	Biokimika II	S	1	0	1	6	0	32	Euskara

DEI: erabilitako deialdi kopurua; MAT: matrikula kopurua irakasgaiak; UKO: egindako uko kopurua; A: Aitortutako kredituak; \*: irakasgaia kalifikatzeke dago;  
 Motak: D=Adarraren Oinarritzkoa S=Beste adar batzuen oinarritzkoa Y=Gradu-amaierako lana P=Hautazkoa O=Nahitaezkoa

**KREDITUAK GUZTIRA: 60**

UPV/EHUko ZERBITZU GUZTIEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIOA: ERABILTZAILA IZENA ETA PASAHITZA  
 INFORMACIÓN DE USUARIO Y CONTRASEÑA PARA TODOS LOS SERVICIOS DE LA UPV/EHU.

**Gestión Académica**

Data: 2022ko apirilaren 8      Fecha: 8 de abril de 2022  
 PASAPORTEA: E247896      PASAPORTE: E247896  
 Izena: Josune      Nombre: Josune  
 Abizenak: Bat Bederatzi      Apellidos: Bat Bederatzi


Erabiltzaile izen bat esleitu zaizu, Para poder acceder a las aplicaciones de la UPV/EHUren aplikazioetara sartzeko aukera UPV/EHU, le ha sido asignado un código de emango dizuna.

Erabiltzailea: 1082569      Usuario: 1082569  
 Ikasleak dagoeneko badauka pasahitza      Contraseña ya disponible por el alumno  
 Posta-kontua: jbat002@ikasle.ehu.eus      jbat002@ikasle.ehu.eus

## 4.9 ORDAINKETEN PANTAILA

Matrikula agiriaren pantaila itxi eta ordainketen pantaila agertuko zaizu.

- Ordainketa helbideratu baduzu, amaitu duzu matrikula egiteko prozesua.
- Ordainketa helbideratu ez baduzu, txartelaren bidez ordaintzeko aukera ikusiko duzu. Sakatu «Txartel bidezko ordainketa» eta ordainketa pasabidea agertuko zaizu.




Expedientea: Bioteknologiko Gradua 2022/23  
 Zure matrikula arazorik gabe amaitu da

M.	Ko-irtegia	Zentratzea
1	Matrikula - Lehen epena	440,75
2	Matrikula - Bigarren epena	408,85
3	Matrikula - Hirugarren epena	408,84

[Txartel bidezko ordainketa](#)      [Abonu-agiri bidezko ordainketa](#)

[Gordetara](#)      [Amaitu](#)



Ordainketa eginda, amaitu duzu matrikula egiteko prozesua. Hamar egun izango dituzu falta zaizkizun dokumentuak igotzeko aplikaziora.


## 5 BALDINTZAPEKO MATRIKULA

Ikasleak baldintzapeko matrikula egin ahal izango du **BALDIN ETA** UPV/EHU ez den **estatuko beste unibertsitate publiko batean** onartua izateko eskaera eginda badu eta oraindik erantzunik jaso ez badu. Horretarako **nahitaez** aurkeztu beharko duzu beste unibertsitate publiko batean onartua izateko eskaera egin duzula egiaztatzen duen agiria.

Aplikazioan sartu eta identifikatu ondoren (eskuliburu honetako 1. eta 2. puntuetan azaldu den moduan), unibertsitate aurreko zure profila agertuko da.

### 5.1 UNIBERTSITATE AURREKO PROFILA


Jarraian, unibertsitateko aurreko zure profila ikusiko duzu:




Ondoren, sakatu «Matrikula graduko 1. mailan. Ikasle berriak. Graduko matrikula», eta aukeratu «**Baldintzapeko matrikula**».

## 5.2 TITULAZIOA

Jarraian, onartua izan zaren gradua agertuko da:




Egin klik NAN zenbakian, eta mezu hau ikusiko duzu. "Onartu" sakatu ondoren, hizkuntza aukeratzeko pantailara pasatuko gara.



## 5.3 HIZKUNTZA, TALDEA ETA IRAKASGAIAK AUKERATZEA


### 5.3.1 Hizkuntza aukeratzea

Aukeratu zein hizkuntzatan ikasi nahi duzun (euskara/gaztelania) eta sakatu «Jarraitu».




### 5.3.2 Taldea eta irakasgaiak aukeratzea

Pantaila honetan taldea aukeratu behar duzu (pantailaren eskuinaldea), klik eginda dagokion laukitxoan.






Taldea aukeratu ondoren, "Erakutsi irakasgaiak" sakatu behar duzu, pantailaren ezker aldean.



Hori eginda, irakasgaiak ikusiko dituzu. Irakasgai guztiak aukeratu behar dituzu. Irakasgaiak aukeratuta emango dizkizu aplikazioak, salbu eta hizkuntza hautatu behar baduzu edota irakasgaiak azpitaldeak baditu.

Hizkuntza edota azpitaldea hautatu behar duzu gezi urdinak adierazten duen lekuan, eta irakasgaia automatikoki aukeratuko da. Guztiak hautatu ondoren, sakatu «Amaitu hautapena».



**Irakasgai honetan:**

Irakasgai honetan:	Mota	Maila	Trauapena	Taldea	Kredituak
<input checked="" type="checkbox"/> Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala	D	1	C	31 Euskara-Goizez	6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Ingurune Ekonomikoaren Analisia	D	1	C	31 Euskara-Goizez	6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Ikus-entzuzeko Hizkuntza	D	1	C	31 Euskara-Goizez	6,00
<input type="checkbox"/> Komunikazioari Aplikatutako Estatistika	D	1	C		6,00 (*)
<input type="checkbox"/> Gaur Egungo Munduaren Historia	D	1	C		6,00 (*)
<input type="checkbox"/> Berrien Idazkera	D	1	C		6,00 (*)
<input checked="" type="checkbox"/> Ikus-entzuzeko Sormen Teknikak	D	1	C	31 Euskara-Goizez	6,00
<input checked="" type="checkbox"/> Informazio Generak	D	1	C	31 Euskara-Goizez	6,00
<input type="checkbox"/> Komunikazio eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak	D	1	C		6,00 (*)


**Aukeran dituzun nahitaezkoak:**

Irakasgai honetan:	Mota	Maila	Trauapena	Taldea	Kredituak
<input type="checkbox"/> Gaztelaren Erabilerak Komunikabideetan	S	1	Lauhileko	01 Gaztelama-Goizez	6,00
<input type="checkbox"/> Euskararen Erabilerak Komunikabideetan	S	1	Lauhileko		6,00 (*)

Atzera Amaitu hautapena

## 5.4 MATRIKULAREN LABURPENA

Pantaila honetan zure matrikularen laburpena ikusiko duzu. «Jarraitu» sakatu aurretik, berrikusi matrikularen laburpena.



**HAUEK IZANGO DIRA ZURE MATRIKULAREN BEHIN BETIKO DATUAK. JARRAITU AURRETIK, BEGRATU EA DENA ONDO DAGOEN.**

D=Adarraren Oinarritzea S=Beste adar batzuen oinarritzea Y=Gradu-amaierako lana P=Hautazkoa O=Nahitaezkoa

KODEA	IZENA	MOTA	IKASTURTEA	DEIAL.	MAT	UKO	TALDEA	KREDITUAK
27083	Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala	D	1	0	1	0	31	6,00
27086	Ingurune Ekonomikoaren Analisia	D	1	0	1	0	31	6,00
27087	Ikus-entzuzeko Hizkuntza	D	1	0	1	0	31	6,00
27088	Komunikazioari Aplikatutako Estatistika	D	1	0	1	0	31	6,00
27799	Euskararen Erabilerak Komunikabideetan	S	1	0	1	0	32	6,00
27090	Berrien Idazkera	D	1	0	1	0	66	6,00
27091	Ikus-entzuzeko Sormen Teknikak	D	1	0	1	0	31	6,00
27092	Informazio Generak	D	1	0	1	0	31	6,00
27093	Komunikazioa eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak	D	1	0	1	0	66	6,00
27089	Gaur Egungo Munduaren Historia	D	1	0	1	0	66	6,00

DEIAL.: erabilitako deialdi kopurua; MAT: matrikula kopurua irakasgaiak; G: irakasgai egokituak; \*: irakasgai kalifikatze dago; UKO: egindako uko kopurua.

KREDITUAK GUTZIRA 60,00

Atzera Jarraitu

Hurrengo pantailan aukeratuko duzu zein hizkuntzatan inprimatu nahi duzun matrikula agiria. Hori egin ondoren, sakatu «Jarraitu» eta dokumentazioaren pantailara pasatuko zara.

https://gestion-integracion-servi... Matrikularen gordekinaren aurre...  
gestion-integracion-servicios.ehu.es/pls/entrada/matw0250.guardar#  
Unify Circuit - Mak... Listin Novedades Nueva pestaña

**Espedientea** Kredituen kontsulta

Gratu Bikoitza: Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak 2022/23

Matrikularen gordekinaren aurreko pantaila

Zein hizkuntzatan inprimatu nahi duzu gordekina?: Euskaraz

**Jarraitu**

## 5.5 DOKUMENTAZIOAREN PANTAILA

Pantaila honetan igo beharko duzu, nahitaez, UPV/EHU ez den estatuko beste unibertsitate publiko batean onartua izateko eskaera egin duzula egiaztatzen duen agiria:

**Dokumentazioa** UPV / EHU

Nortasun-egiriaren zik: 7 Izena: APELLIDO0869951 APELLIDO2, NOMBRE

**Gehitu dokumentua**

Fitxategiaren luzapena: pdf, doc, docx, jpg, png

Dokumentuaren izena: (Geh. 5,0 MB)  Sin archivos seleccionados

**Garbitu eremuak** **Gehitu dokumentua**

**Jarraitu**

Sakatu «Aztertu» dokumentua bilatzeko eta, aukeratu ondoren, sakatu «Gehitu dokumentua». Dokumentua agertuko da geziak erakusten duen lekuan.

**Dokumentazioa** UPV / EHU

Nortasun-eginiaren zkl.:  Izena: APELLIDO869951 APELLIDO2, NOMBRE

---

**Gehitu dokumentua**

Fitxategiaren luzapena: pdf, doc, docx, jpg, png

Dokumentuaren izena:  (Geh. 5,0 MB)  Sin archivos seleccionados

Fitxategia gordeta image.png

**Ez baduzu igotzen dokumentua ez duzu eskuratuko baldintzapeko matrikularen agiria.**

## 5.6 BALDINTZAPEKO MATRIKULAREN AGIRIA

Sakatu «Jarraitu» dokumentazioaren pantailan, eta baldintzapeko matrikularen agiria agertuko zaizu.

Baldintzapeko matrikularen gordekina.pdf - Adobe Acrobat Pro 2017

Archivo Edición Ver Ventana Ayuda

Inicio Herramientas Baldintzapeko matr... x Iniciar sesión

Busque aquí sus herramientas

- Crear archivo PDF
- Editar PDF
- Exportar archivo PDF
- Comentar
- Organizar páginas
- Mejorar digitalizaciones
- Proteger
- Rellenar y firmar
- Preparar formulario
- Comparar archivos
- Más herramientas

Almacene y comparta archivos en Document Cloud [Más información](#)

**BALDINTZAPEKO MATRIKULAREN GORDEKINA** 2022ko uztailaren 6an

Ikasturtea : 2022/23

Matrikula agiria

Ikaslearen izen-abizenak:


Ikastegia: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Ikasketak: GBPEPU31 Gradu Bikoitza: Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak

Irakasgaiak:

KODEA	IZENA	MOTA	MAILA	DEI.	MAT.	KRED.	UKO	TALDEA
27093	Komunikazioa eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak	D	1	0	0	6	0	66
27092	Informazio Generoak	D	1	0	0	6	0	31
27091	Ikus-entzunezko Sormen Teknikak	D	1	0	0	6	0	31
27090	Berrien Idazkera	D	1	0	0	6	0	66
27799	Euskararen Erabilerak Komunikabideetan	S	1	0	0	6	0	32
27088	Komunikazioari Aplikaturako Estatistika	D	1	0	0	6	0	31
27087	Ikus-entzunezko Hizkuntza	D	1	0	0	6	0	31
27086	Ingurune Ekonomikoaren Análisisa	D	1	0	0	6	0	31
27083	Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala	D	1	0	0	6	0	31
27089	Gaur Egungo Munduaren Historia	D	1	0	0	6	0	66


Agiria gorde ondoren, leihoa itxi behar duzu. Hurrengo pantailak esango dizu heldu zarela matrikula egiteko prozesua arazorik gabe burutu dela.




## 5.7 BALDINTZAPEKO MATRIKULA BEHIN BETIKO BIHURTZEA

Baldintzapeko matrikula behin betiko bihurtzeko, aplikazioan sartu behar zara eta identifikatu, eskuliburuko 1. eta 2. puntuetan azaldu den moduan.

Jarraian, sartu unibertsitate aurreko zure profilean eta sakatu «Baldintzapeko matrikula behin betiko bihurtu»:



Jarraian titulazioaren pantaila ikusiko duzu. Sakatu NAN zenbakian, eta jarraitu «Behin betiko matrikula» ataleko urratsei (Ikusi eskuliburuko 4. puntua).



NAN	Ikaslea	Titulazioa	Egitera	Noiz irekia	Azikien matrikularen data	Artxibo ident.
310	GOFIE30	Gratu Bikotza: Fisika + Ingeniaritza Elektronikoa	Irekita	2022/04/06	Azikien matrikularen data	

## 5.8 BALDINTZAPEKO MATRIKULA DEUSEZTATZEA


UPV/EHU<sup>n</sup> erreserbatuta duzun plazari uko egingo badiozu, onartua izan zarela<sup>ko</sup> estatuko beste unibertsitate batean, **GOGOAN IZAN ezeztatu egin behar duzula baldintzapeko matrikula.**

Hau da egin behar duzuna:


Aplikazioan sartu eta identifikatu, eskuliburu honetako 1. eta 2. puntuetan azaldu den moduan.

Jarraian, unibertsitateko aurreko zure profila ikusiko duzu:

Gestio Akademikoaren Atala  
 Graduako Ikasketen Zerbitzua



Aukeratu «Baldintzapeko matrikula deuseztatu», eta hurrengo pantailan gradua agertuko zaizun. Egin klik NAN zenbakian:



Mezu hau ikusiko duzu: «Sartzeko eskaera baldintzatua ezeztatu nahi duzu?»

<b>Sartzeko eskaera baldintzatua ezeztatu nahi duzu?</b>	
<b>Ikasturtea</b>	2022/23
<b>Nortasun-agiri zk.</b>	79
<b>Ikaslea</b>	Ocamica O.
<b>Titulazioa</b>	GBPEJU1 - Gradu Bikoitza: Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak
<b>Ikastegia</b>	323 - Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
<b>Noiz irekia</b>	2022/01/28
<b>Egoera</b>	Irekita

**Ezeztatu** **Atzera**

Sakatu «Ezeztatu», eta galdera hau agertuko zaizu: «Ziur zaude baldintzapeko matrikula ezeztatu nahi duzula?» Sakatu «Onartu».


gestion-integracion-servicios.ehu.es dice:  
Ziur zaude baldintzapeko matrikula baliozabatu nahi duzula?

**Aceptar** **Cancelar**

**Ezeztatu** **Atzera**

Baldintzapeko matrikularen ezeztatuaren agiria eskuratuko duzu, eta matrikula deuseztatze prozesuaren amaierara helduko zara.





## 6 BESTE AUKERA BATEAN MATRIKULATZEA


Matrikula egiteko epe bakoitza amaituta, plaza hutsak berreskuratzen dira, itxaron zerrendan dauden ikasleei esleitzen zaizkie eta onartuen zerrenda berri bat argitaratzen da. Horrela plaza guztiak esleitu arte.

Zure kasua hori bada, eta onartua izan zaren gradu berrian matrikulatu nahi baduzu, hau da egin behar duzuna:

### 6.1 GAUR APLIKAZIORAKO SARBIDEA

Hau da sisteman sartzeko esteka:


<https://gestion-servicios.ehu.es/html/gaur.html>



Hautatu «Unibertsitateko akademi gestio gaurkotua».


## 6.2 IDENTIFIKAZIOA

Izena emateko fasean (SARBIDEA) erabili zenituen erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko dituzu:




Identifikatu ondoren, pantaila hau agertuko zaizu. Aukeratu «EHUko ikaslea».

Gestio Akademikoaren Atala
   
 Graduako Ikasketen Zerbitzua




### 6.3 UPV/EHUko IKASLE PROFILA

Pantailan agertuko den ikaslearen profilean, klik egin behar duzu «Matrikulak» karpetan:



Ondoren, sakatu «Matrikula graduko 1. mailan. Ikasle berriak. – Graduko matrikula». Ondoren, sakatu “Graduko behin betiko matrikula”




## 6.4 TITULAZIOA

Jarraian, onartua izan zaren titulazio berria ikusiko duzu:


Gestio Akademikoaren Atala

Graduko Ikasketen Zerbitzua




The screenshot shows a web browser window with the URL `gestion-integracion-alumnos.ehu.es/pls/entrada/matw0005.htm`. The page title is "Hautatu espedientea". Below the title is a table with the following columns: NAN, Ikaslea, 310, GDFIE30, Gradu Bikotza: Fisika + Ingeniaritza Elektronikoa, Egoera, Noiz irekia, Azken matrikularen data, and Artxibo ident. The table contains one row with the following data: NAN: [redacted], Ikaslea: NERE, 310, GDFIE30, Gradu Bikotza: Fisika + Ingeniaritza Elektronikoa, Egoera: Irekita, Noiz irekia: 2022/04/06, Azken matrikularen data, and Artxibo ident. Below the table, there is a button labeled "Hautatzeko, egin klik NAN-zk. batean".

Egin klik NAN zenbadian, eta aplikazioak galdetuko dizu aukera berrian matrikulatu nahi duzun eta aurreko matrikula deuseztatu. Hala bada, sakatu «Onartu». Bestela, sakatu «Ezeztatu».



The screenshot shows the same web browser window as above, but with a confirmation dialog box open. The dialog box text is: "gestion-integracion-servicios.ehu.es dice Oraingoan ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua (Plan berria) aukeratu duzu. Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua (Plan berria) EZEZTATU nahi baduzu, sakatu Onartu Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua (Plan berria) ikasketak egin nahi badituzu, sakatu Baztertu." The dialog box has two buttons: "Aceptar" and "Cancelar". The table in the background is partially visible, showing the same data as in the previous screenshot.

«Onartu» sakatuz gero, sistemak berriro galdetuko dizu ea aurreko matrikula deuseztatu nahi duzun eta matrikula berria egin, hurrengo pantailan ikusten den bezala:




Ondoren, sakatu «Onartu» eta sistemak jakinaraziko dizu aurreko matrikula deuseztatu egin dela.

Hortik aurrera, aukera berrian egin ahal izango duzu matrikula.

Horretarako, «**Behin betiko matrikula**» egiteko urratsei jarraitu beharko diezu; baina kontuan izan ez zaizula agertuko dokumentazioa aplikaziora igotzeko pantaila, aurreko matrikula egiterakoan aurkeztu baitzenuen. Dena dela, matrikula behin eginda, dokumentazioa igo ahal izango duzu GAUR aplikaziora (zure ikasle profilean), «Matrikulak (Matrikula graduko 1. mailan. Ikasle berriak)» karpeteraren barruan dagoen «**Matrikulatzeko dokumentazioa igo**» atalean.

## 6.5 BESTE AUKERA BATEAN MATRIKULATZEA, BALDINTZAPEKO MATRIKULA EGINDA IZANEZ GERO ALDEZ AURRETIK


Aplikazioan sartu eta identifikatu ondoren (eskuliburu honetako 1. eta 2. puntuetan azaldu den moduan), unibertsitate aurreko zure profila agertuko da.




Profil horretan bi aukera dituzu:

1. Behin-behineko matrikula egitea onartua izan zaren aukera onenean.
2. Behin betiko matrikula egitea onartua izan zaren aukera onenean.






Nahiago duzun aukeran sakatu eta gero, onartua izan zaren titulazioaren pantaila agertuko zaizu:



NAN zenbakian sakatuta, mezu hau agertuko da: «Ezin da matrikula egin, aldez aurretik baldintzapeko matrikula eginda daukazulako. Jarri harremanetan ikastegiaren matrikula egin ahal izateko.» Onartua izan zaren titulazioari dagokion ikastegiarekin jarri behar zara harremanetan.



Ikastegiak beharrezko tramitea egingo du, matrikula egiten jarrai dezazun. Ikastegiak aipatutako tramitea egin ondoren, sisteman sartu behar zara, unibertsitate aurreko zure profilean, eta urrats hauek egin:

1. Behin betiko matrikula: sakatu **«Graduko behin betiko matrikula»** eta jarraitu **«Beste aukera batean matrikulatzea»** ataleko urratsei (eskuliburuko 6. puntua).
2. Baldintzapeko matrikula: sakatu **«Baldintzapeko matrikula»** eta sistemaren mezuak onartu ondoren, jarraitu **«Baldintzapeko matrikula»** ataleko urratsei (eskuliburuko 5. puntua).